

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Juego y Espectáculos

JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

2012KO MEMORIA **Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Arloa**

AURKIBIDEA

	Orr.
1. Grafikoen aurkibidea	3
2. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumenak ikuskizunen arloan	4
3. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren partaidetza duten organoak	5
4. Organigrama funtzionala	6
• Zerbitzuen banaketa funtzionala.	6
- Zerbitzu Zentralak (Lakua)	
- Lurralde Zerbitzuak	
- Ikuskaritza Zerbitzua	
• Baliabide eta zerbitzu teknikoak	7
5. 2012-12-31ko datu estatistikoak	8
• Ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalak, Eusko Jaurlaritzak kontrolatu behar dituenak. (edukiera >700 pertsona, zezen-plazak eta joko-lokalak)	8
• Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendutako ikuskizunak eta jarduerak.	8
• Ikuskizun-arloan izapidetutako zehapen-espeditenteak eta errekurtsioak.	9
• Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren ikuskaritzalana	14
• Zezen-arloko jarduera	15
- 2011-2012 aldiko zezen-Ikuskizun nagusien konparazio-taula	
6. Ikuskizunen arloko administrazio-tasen ondoriozko diru-sarrerak.	16

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa Baimendutako ikuskizunak eta jolas-jarduerak (motaren arabera)
2. grafikoa Arau-hauste diren egintzengatik irekitako zehapen-espeditentak
3. grafikoa Zehapen-espeditentak (arau-haustearen larritasunaren arabera)
4. grafikoa Zehapen-espeditentak (Lurralde Historikoen arabera)
5. grafikoa Zehapenak (zehapenen egintza eragileen arabera)
6. grafikoa Zuzendaritzaren ikuskaritza-lana
7. grafikoa Zezen-arloko jarduera
8. grafikoa 2012ko diru-sarrerak (Lurralde Historikoen arabera)
9. grafikoa 2011-2012 aldiko diru-sarreren konparazio-taula

ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK

Apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du.

Dekretu horren 15. artikuluaekin bat etorriz, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari ikuskizunen arloko ahalmen eta eginkizun hauek dagozkie:

- *Ausazko jokoei eta ikuskizun publiko eta jolas-jarduerari buruzko politika publikoak lantzea.*
- *Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan Segurtasun Sailari esleitutako ahalmen guztiak baliatzea, beste organo batzuei dagozkienak izan ezik.*
- *Datuak mantentzea eta ustiatzea eta, joko eta ikuskizunei buruzko urteko memoria prestatze aldera, estatistikak eta azterketak egitea.*
- *Joko eta ikuskizun publiko eta jolas-jardueretan zehatzeko ahalmena kontrolatu, ikuskatu eta erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 32.1 artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 38.3.b) artikuluan jasotako zehapenak eta indarrean dauden arauak izenda diezazkiotenak jarritz.*

Halaber, hauxe dagokio: kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legean aurreikusitako zehapen-erregimenari buruzko espedienteak izapidetzea; hori dela eta, arau-hauste arin eta larriei dagozkien zehapenak jarriko ditu.

Zehapen-espediente horiek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Lege Aholkularitza Arloak izapidetuko ditu.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren menpeko lurralde-bulegoek, betiere zuzendaritzaren titularrak emandako jarraibideen arabera, ahalmen eta eskumen hauek gauzatuko dituzte:

- *Baimenak ematea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko. Nolanahi ere, salbuespen izango dira 10.000 lagunetik gorako edukiera dutenak eta zezen-ikuskizun nagusiak.*
- *Lokal publikoen dokumentazioa eta datu-baseak kudeatzea eta eguneratzea, baldin eta horien kontrola Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari badagokio.*
- *Dagokien lurralde-eremuko ikuskaritzarekiko koordinazioa.*

Ikuskapen- eta kontrol-funtzioak betetzea Joko eta Ikuskizun Unitateari dagokio. Unitate hori funtzionalki Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren menpe dago, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearekin bat etorriz.

ZUZENDARITZAREN PARTAIDETZA DUTEN ORGANOK

- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua.
- Zezen Gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emailea.
- Zezen Gaietarako Aholku Batzorde Nazionala (Estatua eta autonomia-erkidegoak).

ZERBITZUEN BANAKETA FUNTZIONALA

ZERBITZU ZENTRALAK (LAKUA)

HELBURUA: ikuskizunetako jarduerak antolatzea eta koordinatzea.

FUNTZIOAK:

- Zerbitzuen plangintza, koordinazioa eta kontrol orokorra egitea.
- Zuzendaritzako aplikazio informatikoen eta datu-baseen kontrola eta jarraipena egitea.
- Baimenen kontrola eta jarraipena egitea.
- Dokumentuen eta prozeduren estandarizazioa.
- Ikuskaritzaren plangintza eta koordinazio orokorra.
- Aholkularitza juridikoa.
- Arau-garapena.
- Jendaurreko Ikuskizunen Kontseiluaren eta Zezen Gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emailearen segimendua.
- Memoriak, estatistikak eta txosten orokorrak.
- Zehapen-espeditenteak izapidetzea.

LURRALDE ZERBITZUAK.

HELBURUA: izapidetzea eta herritarrentzako arreta zuzena.

Joko eta ikuskizun arloko Lurralde Zerbitzuek, betiere zuzendaritzaren titularrak emandako jarraibideen arabera, beren lurralde-eremuan ahalmen eta eskumen hauek baliatuko dituzte:

- a) Baimenak ematea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko. Nolanahi ere, salbuespen izango dira zezen-ikuskizun nagusiak eta 10.000 lagunetik gorako edukiera dutenak eta, dituzten ezaugarri bereziak direla eta, zuzendaritzaren titularrak bereganatzen dituenak.
- b) Dagokien lurralde-eremuko ikuskaritzarekiko koordinazioa.

BESTE FUNTZIO BATZUK:

- Geroagoko izapidetzeari begira, dokumentazioa jasotzea.
- Herritarrei arreta eta aholku ematea.
- Datu-baseak mantentzea eta gainbegiratzea.
- Araudia aplikatzea.
- Lurralde Zerbitzu bakoitzeko memoriak, estatistikak eta txostenak.

IKUSKARITZA ZERBITZUA (Ertzaintzako Joko eta Ikuskizun Unitatea)

HELBURUA: joko eta ikuskizunetako jarduerak zaintzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

FUNTZIOAK:

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako jarraibideak eta indarreko araudia kontuan hartuta:

- Joko eta ikuskizun arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa zaintzea, ikuskatzea eta betearaztea.
- Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren lokaletako ikuskizunak eta segurtasun-neurriak kontrolatzea eta ikuskatzea.
- Materialak, lokalak edo ikuskizunak zigilatzea, konfiskatzea, ixtea edo bertan behera uztea.
- Beren funtzioak betetzetik sortutako aktak egitea eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako organo eskudunari helaraztea.

BALIABIDE ETA ZERBITZU TEKNIKOAK

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak berariazko baliabide teknologikoak ditu ikuskizunen arloa bezalako esparru konplexuen eta bizitasun handikoak direnen kudeaketari, ikuskapenari eta kontrolari aurre egin ahal izateko. Horien artean hauek ditugu:

- Baimenak prozesatzea eta kontrolatzea kudeaketarako eta irudirako sistema informatiko integratuaren bidez, horrek balio baitu zuzendaritzako gaien ohiko izapidetzerako oinarrizko euskarri gisa.
- Ikuskapenerako aplikazio informatikoa (JOIKU)
- Zehapeneterako aplikazio informatikoa (JOIKU)
- Ikuskapena eta kontrola egiteko hainbat material.

2012-12-31KO DATU ESTADISTIKOAK

IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN LOKALAK, EUSKO JAURLARITZAK KONTROLATU BEHAR DITUENAK (EDUKIERA > 700 PERTSONA, ZEZEN-PLAZAK ETA JOKO-LOKALAK)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Dantzalekuak, diskotekak	2	7	3	12
Zinemak, antzokiak	5	12	9	26
Futbol-zelaiak	9	35	11	55
Pilotalekuak	1	11	11	23
Kirol-barrutiak	3	18	5	26
Kiroldegiak	12	18	28	58
Beste kirol-instalazio batzuk	----	9	2	11
Museoak	2	3	1	6
Erakusketa-aretoak	2	----	1	3
Bestelako lokalak	1	4	4	9
GUZTIRA > 700	37	117	75	229
Joko-lokalak	31	117	67	215
Zezen-plaza iraunkorrak	1	6	3	10
LOKALAK GUZTIRA	69	240	145	454


JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAK BAIMENDUTAKO IKUSKIZUNAK ETA JARDUERAK

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	2011	2012
Zezen-ikuskitzen nagusiak	9	17	14	42	40
Usadiozko zezen-ikuskitzenak	49	23	102	185	174
Bestelako zezen-ikuskitzenak (Errekortadoreak)	3	1	2	0	6
Plaza berriro irekitzea	1	4	2	0	7
Birsalmenta	0	1	0		1
Pirotekniazko lehegailuak	6	37	30	80	73
Kontzertuak, jaialdiak	9	56	24	67	89
Zenbait jolas-jarduera	34	126	23	103	183
Ordutegiak luzatzea *	2	3	14	36	19
GUZTIRA	113	268	211	513	592

Ikuskizunen kopurua 2011n eta 2012an antzekoa den arren, begi-bistakoa da zezen-ikuskitzen kopuruak -nagusiak zein usadiozkoak- jaitsiera txikia izan duela. Gainerako ikuskizunen kopurua, berriz, hazi egin da. Deigarria da Gipuzkoan usadiozko zezen-ikuskitzen ugari egin dela. Hori hala izan da lurralde historiko horretan ikuskizun-mota horrek duen tradizio handiagatik.

Halaber, nabarmentzekoa da izapidetutako ordutegi-luzapenak gutxitu egin direla. Horren arrazoia izan daiteke martxoan egindako arau-aldaketak (36/2012 Dekretua) ordutegiak zabaldu dituela eta udalei eskumen gehiago eman diela.

1. Grafikoa. Baimendutako ikuskizunak eta jolas-jarduerak (motaren arabera)



IKUSKIZUN ARLOAN IZAPIDETUTAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEAK ETA ERREKURTSOAK


Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan guztira 71 zehapen-espediente izapidetu dira.

Espedienteak hurrengo tauletan daude banakatuta egintza-mota, arau-haustearen larritasuna eta egintzak zein lurralde historikotan gauzatu ziren kontuan izanda.

IKUSKIZUN ARLOAN IZANDAKO ZEHAPEN ESPEDIENTE GUZTIAK	71
2012AN HASITAKO ESPEDIENTEAK	56
2012an ebatzitakoak	33
2012an ebatzi gabe daudenak	23
2011AN HASI ETA 2012AN EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	15


	2011	2012
ARAU-HAUSTE DIREN EGINTZEN ONDORIOZ IZANDAKO ESPEDIENTE GUZTIAK	77	71
SU ARTIFIZIALAK	2	0
OSTALARITZAKO LOKALA IXTEKO ZEHAPENA EZ BETETZEA	3	3
IRUZURREZKO PUBLIZITATEA	1	0
SEGURTASUN NEURRIAK	15	6
Irregularitasunak ebakuazio-bideetan	9	3
Edukiera handiegia/korridoreetan jende gehiegi egotea	3	0
Segurtasun-arloko beste akats batzuk	3	2
Ziurtagiririk ez aurkeztea	0	1
BAIMENDU GABEKO BIRSALEMENTA EDO SARRERAK SALTZEKO BALDINTZAK EZ BETETZEA	8	7
ZEZEN-IKUSKIZUN NAGUSIAK	13	9
Plazara berandu joatea	5	3
Peioen gurpila	4	2
Ezpata lehenago sartu gabe deskabellatzea	1	1
Zezena ihesbiderik gabe uztea	1	1
Ikusleei errespetua galtzea	0	1
Onartutako neurritik gorako burtziak erabiltzea	2	0
Zezenak deskargatzeko epea ez betetzea	0	1
KIROLEKO INDARKERIA	35	46
Antolatzailea	9	4
Kirol-barrutian izandako jokabidea	14	26
Inguruetan izandako jokabidea	12	16

2. grafikoa. Arau-hauste diren egintzen ondoriozko zehapen-espeditentak




	2011	2012
ARAU-HAUSTEAREN ARABERAKO ESPEDIENTE GUZTIAK	77	71
Oso larriak	2	1
Larriak	18	10
Arinak	30	26
Largetsitakoak	13	11
Ebatzi gabekoak	14	23

3. grafikoa. Zehapen-espeditentek (arau-haustearen larritasunaren arabera)



	2011	2012
ARAU-HAUSTEA EGIN ZEN LURRALDEAREN ARABERAKO ESPEDIENTE GUZTIAK	77	71
Araba	33	18
Bizkaia	25	34
Gipuzkoa	19	19

4. grafikoa. Zehapen-espeditentek (Lurralde historiako arabera)



ERREKERIMENDUAK ETA OHARTARAZPENAK

Zehapen-espeditentek ez irekitzeko asmoz, aldez aurretik zuzentzeko ohartarazpenak eta errekerimenduak egiten dira, askotan balio baitute eskatutakoa zuzentzeko edo betetzeko eta horrela zehapen-espeditenterik ez da ireki behar.

	2011	2012
Errekerimenduak	26	4
Ohartarazpenak	29	26


IKUSKIZUN ARLOKO ERREKLAMAZIOAK	2011	2012
Sarrera ukatzeko eskubidea	6	2
Iruzurra ikuskizuna osatzen duten elementuetan	120*	1
Ageriko deserosotasuna	10	6
Irregularitasunak sarreren salmentan	17	20

Ikuskizuna egiteko arauak	8	14
Arazoak eskuratutako sarrerekin	7	26
GUZTIRA	168	69

(*) Jarduera berekoak dira.

ZEHAPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK	2011	2012
Zezen-ikuskizun nagusiak	13	9
Ebazpenaren ez-betetzeak	0	3
Lokaletako segurtasuna	12	6
Edukiera handiegia	5	0
Ordutegiak ez betetzea	3	0
Kiroleko indarkeria	35	46
Sarreraren birsimenta	8	6
Ikuskizun arloko erreklamazioak	168	69
GUZTIRA	244	139

5. grafikoa. Zehapenak (zehapenen egintza eragileen arabera)



Zehapen-espeditenteei dagokienez, daturik nabarmenenak dira ikuskizunetako erreklamazioen jaitsiera (168tik 69ra), baita lokaletako segurtasunaren inguruko espediente-kopuruaren jaitsiera ere (12tik 6ra). Dena den, kiroleko indarkeriaren arloko espedienteen kopurua hazi egin da.


JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAREN IKUSKARITZA LANA

EGINDAKO IKUSKAPENAK

IKUSKIZUN ARLOKO JARDUERA	2011	2012
Ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalak	220	222
Ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalei buruzko txostenak	28	14
Baimendutako jardueren gainean.	565	524
Lokaletako jarduerari buruzko ikuskapenak	772	829

*Lokalaren lizentzian aurreikusitako jarduerak

6. grafikoa. Zuzendaritzaren ikuskaritza-lana




ZEZEN ARLOKO JARDUERA

2011 - 2012 ALDIKO ZEZEN IKUSKIZUNEN KONPARAZIO TAULA

	2011	2012
ZEZENKETAK	20	20
ZEZENKETA MISTOAK	2	3
BURTZI-ZEZENKETA	2	2
PIKATZAILEDUN NOBILLADAK	4	1
PIKATZAILERIK GABEKO NOBILLADAK	12	12
NOBILLADAK	0	0
BURTZI-NOBILLADAK	0	0
ZEKORKETAK	1	0
JAIALDIAK	1	2
GUZTIRA	42	40

Funtsean, zezenketen jaitziera bat dator nobilladen igoerarekin.

7. grafikoa. Zezen-arloko jarduera




	Araba	Bizk.	Gipuzk.	2011	2012
* Usadiozko zezen-ikuskitzak	49	23	102	185	174

IKUSKIZUN ARLOKO TASEN ONDORIOZKO DIRU SARRERAK

2012. urtean bezala, oraingoan ere gehitu dira Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak sortutako diru-sarrerei buruzko datuak; hain zuzen, administrazio-tasengatiko bilketari loturikoak. Datuen azterketatik ondorioztatzen da hiru lurralde historikoetan izandako diru-bilketarik handiena zezen-ikuskitzunen eragiten dutela, batez ere zezen-ikuskitzun nagusiek.

IKUSKIZUNEN TASAK				
ARABA				
KONTZEPTUA	TASEN GUZTIZKO KOP.		TASEN GUZTIZKO ZENBATEKOA	
	2011	2012	2011	2012
	Ikuskizunak eta jolas-jarduerak baimentzea	18	3	895,06 €
Zezen-ikuskitzun nagusiak	0	1	0	1366,85 €
Usadiozko zezen-ikuskitzunak	1	3	49,78 €	410,16 €
Ordutegi-luzapenak: kasu eta data zehatzetarako	1	1	66,36 €	66,36 €
Ordutegi-luzapenak: 3 hilabetetik gorako alditan	0	0	0	0
Sarrerren birsalmenta	0	0	0	0
Liburuen zuzemenak egitea. 100 orri edo zatiki bakoitzeko	0	2	0	34,18 €
GUZTIRA	20	10	1.011,20 €	1.973,55 €
BIZKAIA				
KONTZEPTUA	TASEN GUZTIZKO KOP.		TASEN GUZTIZKO ZENBATEKOA	
	2011	2012	2011	2012
	Ikuskizunak eta jolas-jarduerak baimentzea	22	14	1.094,18 €
Zezen-ikuskitzun nagusiak	16	5	4246,56 €	3827,18 €
Usadiozko zezen-ikuskitzunak	3	4	149,34 €	205,08 €
Ordutegi-luzapenak: kasu eta data zehatzetarako	3	0	197,78 €	0
Ordutegi-luzapenak: 3 hilabetetik gorako alditan	8	0	1323,95 €	0
Sarrerren birsalmenta	1	1	66,36 €	66,36 €
Liburuen zuzemenak egitea. 100 orri edo zatiki bakoitzeko	0	2	0	34,18
GUZTIRA	53	26	7.078,17 €	4.953,12 €
GIPUZKOA				
KONTZEPTUA	TASEN GUZTIZKO KOP.		TASEN GUZTIZKO ZENBATEKOA	
	2011	2012	2011	2012
	Ikuskizunak eta jolas-jarduerak baimentzea	33	20	1.639,80 €
Zezen-ikuskitzun nagusiak	9	2	2.388,69 €	2.460,33 €
Usadiozko zezen-ikuskitzunak	4	2	199,12 €	102,54 €
Ordutegi-luzapenak: kasu eta data zehatzetarako	1	0	66,36 €	0
Ordutegi-luzapenak: 3 hilabetetik gorako alditan	16	5	2.647,90 €	894,00 €
Sarrerren birsalmenta	0	0	0	0
Liburuen zuzemenak egitea. 100 orri edo zatiki bakoitzeko	2	2	33,18 €	34,18 €
GUZTIRA	65	31	6.975,05 €	4.875,34 €
HIRU LURRALDEEAK GUZTIRA	138	77	15.064,42 €	11.802,01

8. grafikoa. 2012ko diru-sarrerak (Lurralde Historikoen arabera)



9. grafikoa. 2011-2012 aldiko diru-sarreraren konparazio-taula

